

## LOYARTE-TAR ADRIAN JAUNARI

Ongi dakizu chikitandikan  
adizkidiak gerala,  
t'ezta adizkipen azal-utzeko  
imintsiyotsu t'argala;  
ongi dakizu iturri batez  
biyok edan genduala,  
uso churiyak kabi-chuluan  
oitura duten bezela.

Orrechegatik asko poztu naiz  
eman dizuten sariyaz,  
anai bateren zoriyonetan  
bezela ziñez t'egiyaz.  
¡Jarra! aurrera!... Choriyak ere.  
belar, lasto ta ziriyaz,  
egin oi dute kabi galanta,  
gogoz lanian ariyaz.

Bañan eztira lasto ta belar,  
eztira sakar-ispiyak  
gogo aunditan egin dituzun  
idazti goragarriyak;  
zu bezelako gizez biar  
dagon gure Donostiyak,  
zurekin noski jaso ditzazke  
aipamen chalogarriyak.

Zima charreko irriñartetik  
edozer mutur aitzaki,  
bañan leyatsu zaigun gizona  
ori eztabilgu gaizki;  
gure baztarra goratzen dezu  
zure idaztiz ederki,  
t'artaz sariya dagokitzula  
ori edozeñek daki.

R. INZAGARAY

## ON ADRIAN LOYARTE-RI

Iskribalari bikaiñ  
yayuak emendik,  
len ere irten izan  
dira Donostitik;  
bañan zure omena  
gaur jakindu det nik,  
diezoldutzen zaitut  
biyotzen erditik.

Benentan esaten det  
barrendik egiya,  
zuk goitalchatzen dezu  
jayotako erriya;  
¡Aurrera! gizon prestu  
estimagarriya,  
ta zurekin batian  
gure Donostiya.

Loyarte-tar Adrian  
Donostiyakua,  
iskribalari yayo  
pare gabekua;  
izan zaite aurrera  
zori onekua.  
. . . . .  
Pozez eskeintzen dizut  
nere bostekua.

JOSÉ ARTOLA